



I. ERANSKINA. LEHEN HEZKUNTZA

2021-2022 ikasturteko curriculum-antolakuntza

Lehen Hezkuntzako curriculum-antolakuntza abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren 14. artikuluan jasotzen da (Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen du Dekretuak).

Ebaluazioaren izaera

Lehen Hezkuntzan, gaitasunen ebaluazioa banakakoa, jarraitua eta globala izango da, eta ikasleak curriculumeko arlo guztietan egindako aurrerapenari erreparatuko zaio, oinarrizko kompetentziak kontuan hartuta.

Etengabeko ebaluazioaren prozesuaren testuinguruan, ikasleren baten aurrerapena ez bada behar bezalakoa, hezkuntza indartzeko neurriak ezarriko dira. Neurriok zailtasunak hauteman bezain laster hartu beharko dira, eta jarraipen berezia egingo zaio hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen egoerari. Hezkuntza-prozesuarekin jarraitu ahal izateko ezinbesteko ikaskuntzak eskuratzea bermatzeko hartuko dira neurria, bakoitzak behar dituen laguntzekin.

Ebaluazio-tresnak eta -prozedurak.

Etengabeko ebaluazioaren esparruan, ikasturtean ikaslearen prestakuntza-aurrerapenen mailari buruz jasotako informazioa funtsezko elementua izango da azken ebaluazioari eta hurrengo mailara igarotzeko erabakiak hartzeko.

Ikasturte-amaierako ebaluazioa.

Ikasturtearen hasieran, hasierako ebaluazio bat egingo da. Horri esker, ikasle bakoitzaren abiapuntuko egoera zein den ezagutuko da, baita taldearen egoera orokorra ere; hala, programazio didaktikoetan dagozkion doikuntzak egingo dira.

Ikasturtean barrena, irakasle taldeek informazioa jasoko dute ikasle bakoitzak arlo bakoitzean ezarritako kompetentzien garapen-maila eskuratzeko eta helburuak lortzeko egin duen aurrerapenari buruz. Irakasleek eta ikasturtean egindako **ebaluazio-saioen** arteko koordinazioaren bitartez egin zaio jarraipena aurrerapen horri, eta ebaluazio-aktetan jasota geratu da.

Lehen Hezkuntzako **ikasturte bakoitzaren amaieran**, ikasleek lortutako emaitzen amaierako ebaluazioa egingo dute talde bakoitzeko irakasleek. Emaitzen balorazioa jasota geratuko da ebaluazio-dokumentuetan, arloan arloko kalifikazioak adierazita.



Irakasleek ebaluatu egingo dituzte bai ikasleen ikaskuntzak, bai irakasteko prozesuak, bai norberaren irakaskuntza-praktika.

Ebaluazioaren emaitza era honetan adieraziko da:

Kalifikazio negatiboak Gutxiegi (GU), eta gainerakoak Nahikoa (NA), Ongi (O), Oso Ongi (OO) eta Bikain (BI).

Horien ondoan joango da zenbakizko kalifikazioa ere, dezimalik gabe, batetik hamarrera. Hain zuzen ere:

Gutxiegi: 1, 2, 3 edo 4.

Nahikoa: 5

Ongi: 6

Oso Ongi: 7 edo 8.

Bikain: 9 edo 10.

Lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailetan, ikasle bat euskal hizkuntza eta literaturako ebaluaziotik salbuetsita badago, Salbuetsita kalifikazioa emango zaio (SA).

Ikasturte bakoitzaren amaieran, saio bat egingo da aurreko ikasturteetako jakintzagaiak gainditzeke dituzten ikasleak ebaluatzeko. Saio horretan jasoko eta kalifikatuko dira, mailen (1., 2., 3., 4. eta 5. mailak) "akta osagarri" deiturikoetan, maila jakin batean jakintzagairen bat gainditzeke duten ikasleak.

Ez dira jasoko CNE bidez egin diren jakintzagaiak.

Hurrengo mailara igarotzea.

Ikaslea hurrengo ziklora edo etapara igaroko da, baldin eta oinarrizko konpetentziak eskuratutzat jotzen badira. Halaber, hurrengo mailara edo etapara igaroko da, baldin eta jasotako ikaskuntzei esker maila edo etapa berria aprobetxamenduz jarraitu badezake ikasleak. Nolanahi ere, ikasleek, behar izanez gero, ikasketak ondo garatzeko errefortzu-neurriak eta laguntza jaso ahal izango dituzte, aurreko mailan barneratu gabeko ikaskuntzak lortzeko.

Bigarren, laugarren eta seigarren mailak amaitutakoan aurreko atalean adierazitako baldintzak betetzen ez badira, irakasle taldeak, taldean eta tutorearen informazioa eta irizpidea bereziki kontuan hartuta, hausnartuko du ea ikaslearen garapenari laguntzeko neurri egokiena den maila berean beste urtebetez egotea. Neurri hori behin bakarrik hartu ahal izango da Lehen Hezkuntzan, eta, horrekin batera, errefortzu- edo errekupeazio-plan espezifiko bat egin beharko da, mailaz igarotzeko oztopo izan diren zailtasunak gainditzen laguntzeko eta, ikasturte horretan, dagozkion konpetentzien eskuratze-maila lortu ahal izateko.

Lehen Hezkuntzako **gainerako mailetan, automatikoki igaroko da hurrengo mailara.**



Ez igarotzeko erabakia salbuespeneko neurria da, eta ikaslearen ikaskuntza-zailtasunak gainditzeko errefortzu- eta laguntza-neurri arrunt guztiak agortu ondoren hartuko da.

Edonola ere, hurrengo mailara ez igarotzeko erabakia hartu **aurretik**, tutorea ikaslearen gurasoekin edo **legezko ordezkariekin bilduko** da, eta ikasleak zer-nolako **zailtasunak dituen azalduko die**, bai eta zailtasun horiek gainditzeko **zer neurri osagarri proposatzen diren** ere.

Ebaluazioaren emaitzak espediente akademikoan eta historia akademikoan islatuko dira, Hezkuntza Sailaren aplikazioen bitartez (ziurtagiri digitala).

Aurreko ikasturteetan gainditu gabeko arloak gainditzen direnean akta osagarrietan jasoko da informazio hori.

Ikasleak Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igarotzea

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara igaroko da ikaslea, lortutzat jotzen badira Lehen Hezkuntzako etapako eskuratu beharreko oinarriko kompetentziak eta arloetako helburu orokorrak. Halaber, mailaz igoko da lortu gabeko ikaskuntzek ez badute eragozten etapa berria aprobetxatzen jarraitzea edo Lehen Hezkuntzako etapan aurretiaz hartu bada maila berean beste urtebetez egoteko neurria.

Kasu horretan, Lehen Hezkuntzako banakako txostenean adieraziko da ea beharrezkoa den hezkuntza-laguntza edo -errefortzua eta komenigarria ote den hezkuntzako sendotze-programa espezifiko batean sartzea ikaslea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Ikasleek Lehen Hezkuntzan eskolatuta egon ziren ikastetxeak ez beste ikastetxe batzuetan ikasten badute Bigarren Hezkuntza, **koordinazio-mekanismoak** ezarriko dira ikastetxe hartzaileen eta jatorrizkoen artean, etapen arteko trantsizio-prozesua errazte aldera.

Ikasturteko azken hiruhilekoan gutxienez, ikastetxe hartzaileko zuzendaritza-taldeak, orientatzailearekin lankidetzan arituta, bilerak sustatuko ditu ikasleen jatorrizko ikastetxeekin.

Matrikula-prozesua amaitutakoan, ikasle bakoitzaren azken ebaluazio-txostena eskatuko die jatorrizko ikastetxeei, lortutako ikaskuntza-mailari eta ikasleen hezkuntza-premiei buruzko informazio garrantzitsua izateko.

Ebaluazio-agiri ofizialak.

Hezkuntzako Ikuskaritzak jarraibideak argitaratuko ditu, etapetako dokumentazio akademikoa betetzen laguntzeko ikasturte hau amaitu baino lehen

**Ikasleei eta gurasoei edo legezko tutoreei informazioa ematea.**

Ikastetxeak, ikasturte bakoitzaren hasieran, ezarri duen prozeduraren arabera, ikasleei eta haien gurasoei edo legezko ordezkariari **jakinarazi** behar dizkie arlo bakoitzaren **helburuak**, maila edo etapa **ebaluatzeko eta hurrengo mailara igarotzeko irizpideak** eta aplikatuko diren **ebaluazio-eta kalifikazio-prozedurak**.

Era berean, tutoreek, gutxienez hiru hilean behin, ikasleen **hezkuntza-prozesuaren** berri emango dute.

Ikasturte bakoitzaren amaieran, tutoreak, taldeko irakasle taldearen aholkularitzarekin, **banakako txostena** egingo du azken ebaluazioaren ondoren; bertan, ikaslearen ikaskuntza-prozesuaren emaitza jasoko du. Txosten horretan, arlo bakoitzean eskuratutako kalifikazioak jasoko dira, baita bestelako informazioa ere —eskola-errendimenduari buruz, gizarte- eta hezkuntza-integrazioari buruz eta, hala dagokionean, aurreikusitako laguntza- eta errefortzu-neurri orokorrei eta oinarrizko konpetentzien eskuratze-mailari buruz—; era berean, hurrengo mailara edo etapara igarotzeko erabakia ere jasoko da, hala badagokio. Txosten horretan jasoko dira, halaber, hala badagokio, hurrengo zikloan aurreikusi beharreko errefortzu-neurriak ere.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen kasuan, etapa-amaierako banakako txostenak, aurreko paragrafoan aipatutako atalez gain, egokitzapenak eta neurriak jaso beharko ditu, eta, hala badagokio, hurrengo eskola-etaparako aurreikusitako premiak ere bai. Banakako txosten horren kopia bana emango zaie ikaslearen gurasoei edo legezko tutoreei.

Jarraibide hauen VII. eranskinean **banakako txostenen eredu orientagarrietara** sartzeko estekak agertzen dira, nahiz eta gaur egun Hezkuntza Saila lanean ari den banakako txostenak Sailaren aplikazioen bidez egin ahal izateko.

Abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan ezarritakoaren arabera (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa berau), ikasleak adingabekoak direnean, gurasoek eta ikasleen legezko tutoreek **eskuratu ahal**ko dituzte bai ebaluazio-dokumentu ofizialak, baita haien seme-alabei egiten zaizkien ebaluazio-dokumentu ofizial guztiak eta ebaluazioei buruzko ebidentzia guztiak ere, ikastetxeko antolakuntza- eta funtzionamendu-arauek ezarritakoaren arabera. Orobat, **azalpenak eskatu ahal** dizkiete maisu-maistrei eta irakasleei etengabeko ebaluazioaren emaitzei buruz, arlo bakoitzaren ebaluazioari buruz eta hurrengo mailara igarotzeko edo ez igarotzeko erabakiei buruz.